



HAURRAK ETA NERABEAK ZAINZKEKO FORU ALDUNDIEK DITUZTEN ZERBITZU ESPEZIALIZATUEN ETA BESTE GIZARTE ZERBITZU BATZUEN ARTEKO LANKIDETZA PROTOKOLOA

SARRERA

Protokolo hau **Gizarte-babesik gabeko Haur eta Nerabeentzako Harrera-egoitzako Baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuan** ezarritako oharrei jarraiki egin da. Dekretu honen 10. artikuluan Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea aipatzen da, honako hau gogorarazteko:

“Erakunde publikoek lankidetzan jardun behar izango dute eta beren jardunak koordinatu egin beharko dituzte, haurrak eta nerabeak modu koherentean, antolatuan eta integralean zaintzeko, esku-hartzei eta baliabideak erabiltzeko arrazionalizazioari dagokionez ahalik eta eraginkortasun-maila handiena bermatuko duen zaintza, hain zuzen ere”.

Betebehar horren ondorioz, eta lankidetzaren nahiz koordinazio eraginkorra bermatzeko, artikuluko bereko 2. puntuan, f letran, adierazten da haurrak eta nerabeak babesteko Foru Aldundiek dituzten zerbitzu espezializatuek eta beste gizarte-zerbitzu batzuek lankidetzan jarduteko eta koordinatzeko protokoloa ezarri behar dela. Protokolo honetako testuaren arabera, honako hauek dira “beste gizarte-zerbitzu batzuk”: alde batetik, udalaren eskumenekoak direnak (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak), eta beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko eskumenekoak direnak (Familia Bitartekotzako Zerbitzua eta Elkarguneak); horregatik, protokolo honetan ondoren aipatuko dena zerbitzu horiei aplikatu dakieke, bakoitzaren ezaugarri espezifikoetara egokituta.

Foru Aldundietako gizarte-zerbitzuen eta udaletako gizarte-zerbitzuen arteko lankidetzari dagokionez, ezinbestekoa da, bestalde, **Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea** aipatzea; izan ere, *“Arrisku-egoeretan jarduteko jarraibideak”* izeneko 3. atalean, lege horren 54. artikuluan (*“Haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko lurralde-zerbitzu espezializatuen esku-hartzea”*) 2. puntuan honako hau adierazten da dagokion kasua zerbitzu espezializatuek bere gain hartu ondoren adingabearen egoerari buruzko informazioa lekualdatzeari dagokionez:



*Baldin eta kasua ez bazaio igortzen oinarrizko gizarte-zerbitzuari, zerbitzu espezializatuak, aldiro-aldiro, adingabearen egoeraren berri eman beharko dio oinarrizko gizarte-zerbitzuari, eta ahalegina egin beharko du haurraren edo nerabearen eta oinarrizko gizarte-zerbitzuaren arteko harremanek jarrai dezaten, haurra edo nerabea familia-egoitzara itzultzen bada ere, harremanak eta jarraipena erraztearren. Oinarrizko gizarte-zerbitzuari berri emateko betebeharrak hori **salbuetsi egin daiteke** familiaren bizilekura itzultzeko aukerarik aurreikusten ez denean. Oinarrizko gizarte-zerbitzuek, bestalde, egoki iruditzen zaien guztietan, informazioa eskatu ahal izango dute zerbitzu espezializatuera igorri dituzten kasuen bilakaerari buruz”.*

Euskadiko administrazio publikoek elkarrekin koordinatzeko duten betebeharrak horri jarraiki, **Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen** 43. artikuluan honako hau ezartzen da:

“Euskadiko administrazio publikoek elkarrekin lankidetzan jarduteko eta koordinatzeko betebeharrak jarraiki jardungo dute, nahitaezkoak biak, bestalde, sistemaren funtzionamenduan ahalik eta koherentzia, batasun, eraginkortasun eta efizientzia handiena bermatzeko”.

Adingabearen gorenko interesaren ikuspegitik abiatuta, eta lankidetzan nahiz elkarlanean jarduteko betebeharrak aplikatuz, administrazio publiko guztiek lagundu behar dute tratamenduaren helburuari buruz daukaten eta egokia nahiz bereizlea den eta gehiegizkoa ez den informazio oro emanaz.

Azkenik, eta jarduteko jarraibideak bateratzearen, protokolo honetan **Balora** deituriko *“Euskal Autonomia Erkidegoan haur eta nerabeen arreta eta babeserako udal- eta lurralde-erlako gizarte-zerbitzuetan dauden arrisku eta babesgabatasuneko egoeren **balioespenerako Tresnan**”* bildutako balioespen-irizpideak eta eskumenak hartzeko irizpideak erabiltzen dira.

Protokolo honen aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da, eta lankidetzaren horren onuradunak administrazio- edo epai-erlako babes-neurriren bat (tutoretza edo zaintza gurasoek edo tutoreek eskatuta) duten adingabeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundien kargura dagoen babeseko egoitza-baliabide batean zaintza-egoeran daudenak.

Honekin lortu nahi den azken helburua honako hau da: babeseko egoitza-baliabide batean zaintza-egoeran dauden adingabeen kasu-planetan inplikaturik dauden gizarte-zerbitzuek elkarrekin lankidetzan eta koordinazioan jarduteko protokolo komun bat ezartzea. Protokolo horren bitartez, zerbitzuen esku-hartze planen bateratze-lan arautua ekarriko duten lankidetzaren bideak ezarri nahi dira, bide horiek adingabeen kasu-planak hobeto lantzen laguntzeko, Gizarte Zerbitzuei buruzko oharrei jarraiki honako hau eskainiz: *haurrak eta nerabeak modu koherentean, antolatuan eta integralean zaintzea, esku-hartzei eta baliabideak erabiltzeko arrazionalizazioari dagokienez ahalik eta eraginkortasun-maila handiena bermatzeko duen zaintza, hain zuzen ere.*

JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA ABIARAZTEN DUEN ZIRKUNSTANTZIA

Jarraitu beharreko prozedura abiarazten duen zirkunstantzia adingabearen administrazio- edo epai-arloko babeseko neurri bat hartzea da (tutoretza edo zaintza haren gurasoek edo tutoreek eskatuta), adingabea Euskal Autonomia Erkidegoko babes-sareko egoitza-baliabide batean zaintzea ekarriko duena.

JARDUN JARRAIBIDEEN BITARTEZ JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA EZARTZEA

Foru Aldundiaren eskumenekoak diren eta aintzat hartu diren kasuek, arestian aipatutako legeen oharren arabera, larritasun handiko edo oso handiko babesgabetasunak direnez, beren gizarte-espeditenteak irekita eduki beharko dituzte udaleko gizarte-zerbitzuetan edo Txostenak, kasu-planak eta/edo administrazio- edo epai-arloan hartutako neurriak igorri ondoren ireki beharko dira, bereziki adingabea familia-bizilekura itzuliko dela aurreikusten den kasuetan. Edozein kasutan, eta kasu-planari buruzko oharrek aintzat hartuta, honako gizarte-zerbitzu hauen arteko koordinazioa baldintzatuko duten eta ondoren aipatuko ditugun zirkunstantzia hauek gerta litezke:

1. Koordinazioa familiara itzuliko dela aurreikusten den adingabeen kasuetan

Foru Aldundietako zerbitzuen esku-hartzeak irauten duen kasuetan kasu-planean aurreikusten bada adingabea familia-bizilekura itzuliko dela, bi zirkunstantzia gerta litezke udaleko gizarte-zerbitzuei dagokienez familiak bizi duen egoera aintzat hartuta:

a. Ezein udal-baliabiderik ez duten edo behar ez duten familiak (prestazio ekonomikoak, txertatzeko hitzarmenak, lan-orientazioa, genero-indarkeriaren baliabideetara bideratzea eta abar); egoera horretan, zerbitzu horiek eguneratuta eduki beharko dute espeditentea bidalitako kasu-planak eta kasua berrikusteko planak jasoz, Foru Aldundietako zerbitzuekin lankidetzan jarduteko eta adingabeak bere familiara itzultzeko aukera izan dezan.

b. Udalaren baliabideak dituzten familiak, edo Foru Aldundiaren esku-hartzeak irauten duen bitartean baliabidea behar duten familiak; horregatik, koordinazioa funtsezkoa izango da helduen eta adingabeen esku-hartzea egokitzeke. Kasu horretan, udaleko zerbitzuen profesionalek ez ezik Foru Aldundietako zerbitzuen profesionalek ere sarearen bileretara joan beharko dute. Bilera horiek adingabeen esku-hartzei edo adingabe horien familiei buruzkoak dira eta tartean sartutako gizarte-zerbitzuek dei ditzakete.

Kasu-planak eta horien berrikuspenak sei hilean behin bidaliko dira lurraldeko zerbitzutik gurasoen gizarte-espeditentea dagoen Oinarrizko Gizarte Zerbitzura. Gurasoak bananduta edo dibortziatuta badaude, kasu-planak gurasoa bizi den eta adingabea itzuliko den herriko zerbitzura eta beste gurasoa bizi den tokiko udal-zerbitzura bidaliko dira, betiere azken horrekin semea edo alaba itzultzeari dagokionez esku hartzeko helburuak ezarri badira. Plan horietan gurasoekin edo tutoreekin nahiz hurrekin edo adingabeekin ezarritako zuzeneko esku-hartze mota zehaztu beharko da. Nahitaezkoa da gutxienez sare-bilera bat egitea adingabeak beren familietara itzuli aurretik. Bilera horietan tartean sartutako udal-zerbitzuek hartu beharko dute parte.

Nolanahi ere, adingabea bere familia-bizilekura itzultzeko moduan dagoela uste denean, **Balora Tresnak** lurraldeko gizarte-zerbitzuetan artatzen diren kasuetarako xedatzen dituen baldintzak bete beharko dira. Aipatutako kasuei dagokionez, larritasuna murriztu egin da eta horrek eragin du kasu horiek udaleko gizarte-zerbitzuetara bideratu ahal izatea:

1. Lurraldeko Gizarte Zerbitzuek hamabi hilabeteko esku-hartzea eta jarraipena egin dute gutxienez.
2. Larritasun-mailaren murrizketa eta haurraren edo nerabearen zaintzari dagokionez familian lortu diren aldaketek sendotuak eta egonkor iraun dute lau hilabeteko epean gutxienez (lau hilabete hauek esku-hartzearen gutxienerako hamabi hilabeteen barruan egon daitezke).
3. Aldi baterako banantze baten ondoren familia birbatzen den kasuetan, Lurraldeko Gizarte Zerbitzuek haurraren edo nerabearen egoeraren jarraipena egin dute familiaren etxebizitzan sei hilabetez gutxienez, eta aldi horretan egiaztatu da arrisku larriko edo babesgabetasuneko egoera berriz agertu ez dela eta familia-ingurunean lortutako aldaketak sendotu eta egonkortu direla.

Zirkunstantzia horiek gertatzen direnean, **Balora Tresnak** aintzat hartzen ditu, gainera, familiak udal-eskumeneko babeseko zerbitzuak erabili nahi dituztenean jarraitu behar diren jardunak eta lurraldeko gizarte-zerbitzuei adierazten die zer prozedura jarraitu behar duten kasuak lekuz aldatzen badira*.

Halaber, familia berean arrisku arineko edo ertaineko egoeren eraginpeko haurrak edo adingabeak eta arrisku larriko edo babesgabetasuneko egoeren eraginpean dauden beste haur edo adingabe batzuk dauden kasuetan Udaleko eta lurraldeko Gizarte Zerbitzuek jarraitu behar duten jardun-prozedurari dagokionez, **Balora Tresnak** adierazi du esku-hartzea modu koherentean, koordinatuan eta integralean gauzatzea bermatu beharko dela eta, oro har, koordinazioak bi egoera desberdinetan duen erantzukizuna hartzen du kontuan:

- Lurraldeko Gizarte Zerbitzuek familia bereko haur edo nerabe batekin edo gehiagorekin jatorrizko familiara itzultzeko aurreikuspenik gabeko banantze iraunkorreko babes-neurri bat ezartzen dutenean eta arrisku arineko edo ertaineko egoeran dauden beste anai-arreba batzuk daudenean, azken horiekin egingo den esku-hartzea –beharrezkoa bada– Udaleko Gizarte Zerbitzuek koordinatuko dute, eta banantze iraunkorreko neurria duten anai-arreben gaineko esku-hartzea, aldiz, Lurraldeko Gizarte Zerbitzuek koordinatuko dute. Bi zerbitzuek kasuan beharrezkoa den koordinazio-mailari eutsi beharko diote.

- Familia bateko haur edo nerabe bat edo gehiago arrisku larriko edo babesgabetasuneko egoeran daudenean eta Lurraldeko Gizarte Zerbitzuen esku-hartzearen helburua familia birbatzea edo babestea denean, eta arrisku arineko edo ertaineko egoeran dauden beste anai-arreba batzuk daudenean, Lurralde Historiko bakoitzean jardun-prozedura bat ezarri beharko da; prozedura horretan Udaleko eta Lurraldeko Gizarte Zerbitzuek beren gain hartu behar dituzten zereginak eta horien arteko koordinazio-prozedura ezarriko dira. Arestian adierazi dugun moduan, prozedura horrek jardun integral eta koherente baten garapena bermatu beharko du, eta baita koordinazio arin eta iraunkorra bi zerbitzuen artean ere. Lurraldeko Gizarte Zerbitzuek familia-etxebizitzan garatuko diren esku-hartze psiko-sozio-hezitzaileak koordinatuko dituzte, eta, kasuarentzat komenigarriagoa izateagatik Udaleko eta Lurraldeko Gizarte Zerbitzuek bestelakorik erabakitzen dutenean izan ezik, familia birbatzeko edo babesteko abian jartzen diren programa espezifikoak Lurraldeko Gizarte Zerbitzuek koordinatuko dituzte.

2. Koordinazioa familiara itzuliko dela aurreikusten ez den adingabeen kasuetan

Adingabea –bere kasu-planean edo kasuaren berrikuspenean azaltzen da ez duela familia-bizilekura itzultzeko aukerarik– administrazio- eta epai-arloko babeseko neurripean hartu behar dela lehenengo aldiz jakinarazi ondoren, udaleko eta lurraldeko zerbitzuak elkarrekin komunikatzeko bidea irekita utziko da zirkunstantzia bereziei erantzuteko, bi gizarte-zerbitzuetako edozeinek eskatuta, edo kasu-planaren orientazioan aldaketaren bat izan delako, aurreko atalean aipatutako koordinaziorako jarraibideak ezartzeko.

3. Koordinazioa adin-nagusitasunera iritsi ondoren burujabetasunera bideratuko diren adingabeen kasuetan

Administrazio- edo epai-arloko babeseko neurri bat duen eta egoitza-harrerako baliabide batean bizi den adingabeak bere kasu-planean azaltzen bada adin-nagusitasunera iristen denean burujabea izango dela, adin-

nagusitasun horretara iritsi aurretik, lurraldeko gizarte-zerbitzuek dagokion udaleko gizarte-zerbitzuan baja eman duela adierazten duen Txosten bat egingo dute, baldin eta gazte hori biziko den tokiaren berri baldin badute eta etorkizun hurbilean harreman hori beharrezkoa izango dela uste baldin bada. Aitzitik, gaztea zein udalerritan biziko den ez baldin badakite, udaleko gizarte-zerbitzuek udalerrri horri buruzko informazioa eskatuko dute gaztea non biziko den jakin ondoren, eta betiere udaleko gizarte-zerbitzuen kargurako esku-hartze bati hasiera eman behar bazaio edo gaztea bizi den bizikidetza-nukleoan esku hartu behar baldin bada.

Haurrak babesteko lurraldeko zerbitzuetan espedientea daukaten adin nagusikoei buruzko informazioa Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraiki bidaliko da, informazio horren eskabidean adingabe baten babesgabetasunaren balioespena tartean sartuta dagoen kasuetan izan ezik. Zirkunstantzia hori baldin badago, *adingabearen interesa* nagusituko da, *3/2005 Legeak* dioenaren arabera, Lege horrek oinarritzko inspirazio-printzipio gisa biltzen baitu.

4. Bitartekotzako Zerbitzuekiko eta Elkarguneekiko koordinazioa

Protokolo honen testuaren arabera, hasiera batean adierazi denez, honako hauek dira, halaber, *“beste gizarte-zerbitzu batzuk”*: Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko eskumenekoak direnak (Familia Bitartekotzako Zerbitzua eta Elkarguneak). Zerbitzu horiek babesgabetasun-espedientea duten haurren gurasoekin esku-hartze bati ekiten badiote, edo esku-hartzeak irauten duen bitartean babesgabetasun-espediente bati hasiera ematen bazaio, protokolo honetan aipatzen diren legeek tartean sartutako gainerako gizarte-zerbitzuentzat ere aintzat hartzen dituzten lankidetza-adierazleei jarraituko zaie.

Helburu horrekin, jardunak koordinatzen dituzten gizarte-zerbitzuen eta Familia Bitartekotzako Zerbitzuen eta Elkarguneen artean norabide biko informazioa emateko eredu erantsi da. Era berean, zerbitzuen arteko lankidetza eta koordinazio egokia lortzearren, alta eta baja emateko eta jarraipena egiteko sarearen bileretara joan beharko dute. Bilera horiek adingabeen esku-hartzei edo adingabe horien familiei buruzkoak izango dira eta tartean sartutako edozein gizarte-zerbitzuek dei ditzake.

HARREMANETARAKO AGENDAK

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia:
<http://www.gipuzkoagazteria.net/orria.php?hizkntz=1&pg=6>

Arabako Foru Aldundiaren Adingabearen eta Familiaren Arloa
www.alava.net/ifbs/ > **MENOR Y FAMILIA**

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzak, Haurrak
http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=236

Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-servsoci/es/>

ERABILI BEHARREKO INPRIMAKIAK

Orientazio gisa, honako dokumentu hauek erantsi dira:

- Hasierako kasu-planaren eredua
- Kasu-plana berrikusteko eredua
- Gizarte Zerbitzu Espezializatuen eta Elkarguneen eta Familia Bitartekotzako Programaren artean norabide biko informazioa emateko eredua

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren

7a

HASIERAKO KASU PLANA
Adingabearen eta Familiaren Arloak (GOFE) koordinatutako kasuak

Data (BOLB):

EGILEA:

Izen-abizenak _____

Unitatea _____

Data _____

FAMILIAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK:

Haurraren edo gaztearen izen-abizenak _____

Jaioteguna _____ Jaioterria: _____

Nazionalitatea: _____

Dokumentu-egoera: _____

Espediente-zenbakia _____ Irekiera-data _____

Jakinarazteko bidea: _____

Familia-osaera (familiako kideen izen-abizenak, haurrarekiko edo gaztearekiko ahaidetasuna):

Bizikidetzaren Unitateko Kideak

Izen-abizenak

Jaioteguna

Ahaidetasuna

Familiaren helbidea: _____
Familiarekin harremanetan jartzeko telefono-
zenbakiak: _____
Oharrak:

BALIOESPEN DIAGNOSTIKOA (Arloak esku hartzeko arrazoia, jakinarazpen-
iturria eta -data, Harrera-, Ikerketa- eta Balioespen-prozesuaren laburpena,
babesgabetasun mota eta horren larritasuna, haurrari edo gazteari eta familiari
buruzko informazio esanguratsuenaren laburpena, familia-gaikuntzaren
pronostikoa). Erantsi balioespenaren txostena, baldin eta beharrezkotzat hartzen
bada.

Orientazioak:

Tratu txarren tipifikazioa Balora Tresnaren oharren edo gurasoek gauzatutako
babesgabetasun-adierazleen arabera

Adierazle horiek haurrengan edo adingabearengan dituzten ondorioak / Kalte
emozionala nerabearengan

Adingabeen portaerak, gurasoek gauzatutako babesgabetasun-adierazleen
ondorioz argi ezartzen ez dakigunak

Babesgabetasunarekin lotutako alderdiak

Babes-faktoreak

AURRETIK HARTUTAKO BABESGABETASUN NEURRIAK (hartutako
neurria(k), administrazio-ebazpen kopurua eta data, hasitako baliabide juridikoa,
haurraren edo gaztearen kokapena, helbidea eta telefonoa)

ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA (Azaldu haurrarekin, gaztearekin eta haren
familiarekin izandako elkarrizketak. Deskribapena eta datak)

**ADINGABEAREN ETA FAMILIAREN ARLOAK GAUZATUTAKO ESKU-
HARTZEAREN HELBURUA:**



- Esku-hartzearen balioespena
- Familia babestea: Familia-gaikuntza
- Familia babestea: Familia-osagarria
- Aldi baterako Banantzea eta Familia Birbatzea
- Banantze Iraunkorra eta familia berri batean txertatzea
- Banantze Iraunkorra eta Emantzipaziorako Prestatzea
- Banantze Iraunkorra eta Egoitza Ingurune Espezializatu batean txertatzea
- Harrera ondoko jarraipena
- Jarraipena (Babesgabetasun larri gisa sailkatu ez diren anai-arreben kasuetarako eta/edo aurretik egoitza- eta/edo familia-harrerarik izan ez duten jarraipen-kasuetarako)
- Adingabea babestea

HELBURU OROKORRAK:

- a) *Haurrari edo gazteari dagokionez*
- b) *Familiari dagokionez*
- c) *Bestelakoak*

HELBURUAK LORTZEKO DENBORA EPEA: _____

APLIKATU BEHARREKO BABES NEURRIA:

Neurria:

- Tutoretza automatikoa (*Erantsi jaiotza-agiri literala*)
- Zaintza: administrazio-arlokoa epai-arlokoa
(*Erantsi Familia Liburuaren kopia*)

Neurrietatik salbuestea (zaintza edo tutoretza)

Banantzearen aurreikusitako iraupena:

- 6 hilabetetik behera 6-24 hilabete 24 hilabete baino gehiago
- Behin betikoa

Baliabidea:

- Familia-harrera: familia zabalean norberarena ez den familian
- Hartzaileen izen-abizenak

(*Erantsi Egokitzapen- edo Egokitasun-txostena*)

Egoitza-harrera. Zentroa

Adopzio aurreko harrera eta adopzioa

Harrera ondoko jarraipen-programa

*Aplikatu beharreko baliabidean eskatzen diren baldintza bereziak
(esate baterako: familia hartzailearen edo egoitza-zentroaren
ezaugarriak, kokapen geografikoa)*

Beharrezkoak al dira banantze-prozesuan haurra edo gaztea prestatzeko edo hari laguntzeko jardun espezifikoak? Erantzuna baiezkoa bada, zer jardun?

Haurraren edo gaztearen eta ahaideen bisita-erregimena:

<i>Norekin?</i>	<i>Maiztasuna</i>	<i>Lekua</i>	<i>Gainbegiratzeko premia?</i>

Ba al dago bisita-murriztapenik? Zehaztu.

KASUAN APLIKATU BEHARREKO BALIABIDE ESPEZIALIZATUAK EDO KOMUNITARIOAK:

<i>Baliabidea</i>	<i>Hartzailea(k)</i>

Prezio publikoa: _____

**FAMILIAREKIN ETA HAURRAREKIN EDO GAZTEAREKIN EZARRITAKO
AKORDIO ETA KONPROMISO IDATZIAK:**

Bai (erantsi kopia espedientean) Ez

EGOKITZAT HARTZEN DEN PLANA:

Proposatutako Planarekiko aldeak (erabilitako baliabidean, adingabeak kokapen horretan egoteko aurreikusitako denbora, familiaren edo harrerazentroaren ezaugarri espezifikoak, bisita-erregimena, bestelako esku-hartze osagarriak, eta abar)

Plan egokiaren eta proposatutako Planaren arteko aldeen arrazoiak

KONTINGENTZIA PLANA:

BESTE PERTSONA BATZUK ETA HARREMANETARAKO TELEFONOAK:

**PLANAREN EGIKARITZEA KOORDINATUKO DUEN
UNITATEA:** _____

KASUAREN KOORDINATZAILEA:

PLANA BERRIKUSTEKO DATA: _____

BLOB BATZORDEAK BERRIKUSTEKO DATA (hala badagokio)

Unitatearen Taldeburuaren O.E.

**Arloko Zuzendariorde Teknikoaren
O.E.**

O.E. _____

O.E. _____

**KASU PLANAREN BERRIKUSPENA***Adingabearen eta Familiaren Arloak (GOFE) koordinatutako kasuak***Data (BOLB):**

Aurreko kasu-planean aurreikusitako berrikuspen-plana:

EGILEA:

Izen-abizenak _____

Unitatea _____

Data _____

FAMILIAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK:

Haurraren edo gaztearen izen-abizenak:

Jaioteguna _____

Jaioterria: _____

Nazionalitatea: _____

Dokumentu-egoera: _____

Espediente-zenbakia _____

Irekiera-data _____

Familia-osaera (familiako kideen izen-abizenak, haurrarekiko edo gaztearekiko ahaidetasuna):

Aldaketak familia-osaeran (esate baterako: anai-arreba berriak), familiaren helbidea edo telefono-zenbakia:

Familiaren helbidea: _____

Familiarekin _____

harremanetan _____

jartzeko _____

telefono- _____

zenbakiak: _____

Oharrak: _____

AZKEN KASU PLANA PLANIFIKATUTAKOAREN ARABERA EGIN AL DA?

Erantzuna ezezkoa bada, azaldu gertatu dena eta horretarako arrazoiak.

Labur-labur adierazi zer adostu zen kasu-planaren azken berrikuspenean, zer egin den, zer ez den egin eta zergatik.

HAURRARI ETA FAMILIARI BURUZKO INFORMAZIO BERRI GARRANTZITSUA, HARK IZANDAKO BILAKAERAREN LABURPENA ETA EGUNGO EGOERA, ETA AZKEN KASU PLANEAN AURREIKUSITAKO HELBURUEN BETETZE MAILA. *Erantsi txostena, baldin eta beharrezkotzat hartzen bada.*

Orientazioak:

Tratu txarren tipifikazioa Balora Tresnaren oharren edo gurasoek gauzatutako babesgabetasun-adierazleen arabera

Adierazle horiek haurrengan edo adingabearengan dituzten ondorioak / Kalte emozionala nerabearengan

Adingabeen portaerak, gurasoek gauzatutako babesgabetasun-adierazleen ondorioz argi ezartzen ez dakigunak

Babesgabetasunarekin lotutako alderdiak

Babes-faktoreak

HAURREKIN, GAZTEEKIN ETA HORIEN FAMILIEKIN IZANDAKO HARREMANAK. ARRAZOIA ETA DATAK

AURREKO KASU PLANAREKIN ALDERATUTA, KASU PLAN HONETAN EGIN DIREN ALDAKETAK:

Arloko Esku-hartzearen helburua	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Helburu orokorrak		
Adingabeari dagokionez	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Familiari dagokionez	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Beste batzuk	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Aplikatu beharreko babes-neurria	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Banantzearen aurreikusitako iraupena	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Babesteko baliabidea	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Bisita-erregimena	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Aplikatu beharreko beste baliabide batzuk	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Kasua dagoen unitatea	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez

Kasua koordinatzen duen teknikaria

Bai Ez

ADINGABEAREN ETA FAMILIAREN ARLOAK GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

- Esku-hartzearen balioespena.
- Familia babestea: Familia-gaikuntza.
- Familia babestea: Familia-osagarria.
- Aldi baterako Banantzea eta Familia Birbatzea.
- Banantze Iraunkorra eta familia berri batean txertatzea.
- Banantze Iraunkorra eta Emantzipaziorako Prestatzea
- Banantze Iraunkorra eta Egoitza Ingurune Espezializatu batean txertatzea.
- Harrera ondoko jarraipena.
- Jarraipena (Babesgabetasun larri gisa sailkatu ez diren anai-arreben kasuetarako eta/edo aurretik egoitza- eta/edo familia-harrerarik izan ez duten jarraipen-kasuetarako)
- Adingabea babestea.

HELBURU OROKORRAK:

a) Adingabeari dagokionez

b) Jatorrizko familiari dagokionez

c) Bestelakoak

HELBURUAK LORTZEKO DENBORA EPEA: _____

APLIKATU BEHARREKO BABES NEURRIA:

Neurria:

- Tutoretza automatikoa (*Erantsi jaiotza-agiri literala, baldin eta Tutoretza hartzeko asmoa badago*)
- Zaintza: administrazio-arlokoa epai-arlokoa (*Erantsi Familia Liburuaren kopia*)

Neurrietatik salbuestea (zaintza edo tutoretza)

Banantzearen aurreikusitako iraupena:

- 6 hilabetetik behera 6-24 hilabete 24 hilabete baino gehiago
- Behin betikoa

Baliabidea:

- Familia-harrera: familia zabalean norberarena ez den familian

Hartzaileen izen-abizenak

(Erantsi Egokitzapen- edo Egokitasun-txostena hartzaileak aldatu badira)

Egoitza-harrera. Zentroa

Adopzio aurreko harrera eta adopzioa

Harrera ondoko programa

Aplikatu beharreko baliabidean eskatzen diren baldintza bereziak (esate baterako: familia hartzailearen edo egoitza-zentroaren ezaugarriak, kokapen geografikoa).

Beharrezkoak al dira banantze-prozesuan haurra edo gaztea prestatzeko edo hari laguntzeko jardun espezifikoak? Erantzuna baiezkoa bada, zer jardun?

Haurren edo gaztearen eta ahaideen bisita-erregimena:

Norekin?	Maiztasuna	Lekua	Gainbegiratzeko premia?

Ba al dago bisita-murriztapenik? Zehaztu.

KASUAN APLIKATU BEHARREKO BALIABIDE ESPEZIALIZATUAK EDO KOMUNITARIOAK:

(gehitu laguntza ekonomikoak, koordinazioak eta abar)

Baliabidea	Hartzailea(k)

**FAMILIAREKIN ETA HAURRAREKIN EDO GAZTEAREKIN EZARRITAKO
AKORDIO ETA KONPROMISO IDATZI BERRIAK:**

Bai (erantsi kopia espedientean) Ez

EGOKITZAT HARTZEN DEN PLANA:

Proposatutako Planarekiko aldeak (erabilitako baliabidean, adingabeak kokapen horretan egoteko aurreikusitako denbora, familiaren edo harrera-zentroaren ezaugarri espezifikokoak, bisita-erregimena, bestelako esku-hartze osagarriak, eta abar)

Plan egokiaren eta proposatutako Planaren arteko aldeen arrazoiak

KONTINGENTZIA PLANA:

PLANAREN EGIKARITZEA KOORDINATUKO DUEN
UNITATEA: _____

KASUAREN KOORDINATZAILEA: _____

PERTSONA BERRIAK ETA HARREMANETARAKO TELEFONOAK:

PLANA BERRIKUSTEKO DATA:

BLOB BATZORDEAK BERRIKUSTEKO DATA (hala badagokio):

Unitatearen Taldeburuaren O.E.

Arloko Zuzendariorde Teknikoaren
O.E.

O.E. _____

O.E. _____

BIDERATZE FITXA

Data:
Esp.-zk.:

IGORLEA:	HARTZAILEA: Eusko Jaurlaritzaren Familia Bitartekotzako Zerbitzua
----------	---

- **ERABILTZAILEEN DATUAK**

IZENA	ABIZENAK

- **BIDERATZEAREN ARRAZOIA**

- **ITZULERARI BURUZKO INFORMAZIOA**

- Bertaratu dira:
 _____ jauna/andrea Eusko Jaurlaritzaren Familia
 Bitartekotzako Zerbitzura bertaratu den data: _____
 _____ jauna/andrea Eusko Jaurlaritzaren Familia
 Bitartekotzako Zerbitzura bertaratu den data: _____
 _____ jauna/andrea Eusko Jaurlaritzaren Familia
 Bitartekotzako Zerbitzura bertaratu den data: _____
- Bitartekotza-prozesuari hasiera ematea onartu dute: **BA/EZ**
- Bitartekotza-prozesua amaitu dute: **AKORDIOEKIN/AKORDIORIK GABE**